



Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

BAKARTXO TEJERIA
Donostia, 2024ko apirilaren 17a

Alderdikideok, alderdizaleok, lagunok, arratsalde on!

Gaur, gure azken mitin nazionala da Gipuzkoan, eta uzten badidazue, gidoitik atera eta ez dut betiko mitina egingo.

Kanpaina osoa daramagu errepikatzen, zalantzan dauden pertsonak direla hauteskunde hauen giltza, eta beraien esku dagoela emaitza. Zuei kanpaina honetan eskatu dizuet, datorren igandean EAJri botoa zergaitik eman behar zaion azaltzea. Hori da, gaur eta hemen egiten saiatuko naizena.

Zalantzak dituzten pertsona bakoitzarekin -eta batez ere beste batzuetan PNVrengan konfiantza izan dutenekin- hitz egiteko aukera izatea gustatuko litzaidake, baina, badakit hori ezinezkoa dela.

Hasteko, zalantzak izatera bultzatu dituzten arrazoiei buruz galdetuko nieke, izan izango direlako. Eta barkamena eskatuko nieke huts egin diegun hartan. Hori esanda, berriz ere gugan konfidantza izateko eskatuko nieke. Askok baitugu jokoan, maila pertsonalean zein kolektiboan.

Adineko pertsonekin, gure gurasoen belaunaldikoekin hitz egiterakoan, herri hau altxatzea zenbat kostatu zitzaien hizpide izango nuke. Gure gurasoen belaunaldiak lanaren eta esfortzuaren kulturen hezi gaituzte. Industria-birmoldaketa aroa bizi izatea suertatu zitzaien; beraien lanari esker eta guztion artean, gaur dugun herria eraiki dugu. Osakidetza, Ertzaintza eta euskal hezkuntza-sistema sortu ditugu. Euskara, gure hizkuntza biziberritu eta Euskadik herri gisa dugun errekonozimenduan urratsak eman ditugu. Aberria maitatzen erakutsi ziguten, hori bai BISIOA.

Askok aurreratu dugu eta ezin da galtzeko arriskuan jarri. Ezin dugu hamarkadetan, aurrerapena oztopatzen aritu direnen esku utzi gure geroa. Baina jakin badakigu, adineko belaunaldikoek osasunarekin, zaintzarekin kezkatuta daudela. Gugan konfidantza izan dezatela eskatuko nieke, osasuna gure lehentasuna baita. Pandemiaren ondorioak gainditzeko neurriak ditugu. PNVren agindupean Jaurilaritzak Osakidetza sortu zuen eta zerbitzu eredugarria izaten jarraitzeko lehen interesatuak, gu gara.

Nire belaunaldiko pertsonekin hizketan, azken 25 urteetan gauzak nola aldatu diren aipatuko nieke. Karrera amaitu genuen garaian langabezia % 25koa zen, eta orain % 6koa. Eta hori ikuspegi estrategikoa izan dugulako lortu dugu, aberastasuna lortu dugu, industria eta ekonomia bultzatzen dituen eredu bat gauzatu dugulako. Eta irabaziekin zerbitzu publiko sendoak garatu ditugu.

Are gehiago, gure programan ditugun ekimen eta neurri zehatzei buruz arituko nintzaieke. Etxebizitza-kenkaria mantentzea bezalako neurriak adibidez. Baina, batez ere, geroaz mintzatuko nieke, gure seme-alabentzat nahi dugun etorkizunaz. Nik, neriei, Euskadi oparota utzi nahi diet, Euskadi solidarioa, eskubide guztiak defendatuko dituen. Euskadi aske bat, gizon eta

emakume librez osatua, eta etorkizunean bere buruaren jabe izango den Herria. Eta, benetan diot, Euskadi hau bermatuko duen alderdi bakarra Eusko Alderdi Jeltzalea da.

Gazteei, gazteei esango nieke, kontuz aitzakia eta hitz politekin, benetako asmoak izkutatu nahi dituzten horiekin. Batzuen eta besteek aurkezten ditugun proposamenak alderatzera animatuko nituzke. Eta batzuk saltzen duten "ziklo-aldaketa" delako hori zertan gauza daitekeen pentsatzeko eskatuko nieke.

Gazteak zarete herri honen etorkizuna, prestakuntzarik onena, kalitatezko lana, soldata duinak, emaztipazioa, eta batik bat, zuek nahi duzuen bizi proiektua aurrera emateko aukera eskaini nahi dizuegu. Aipatutako bakoitzari galdetuko nizueke, Euskadin nola bizi garela uste duzue? Herritarren gehiengoak beraien egoera pertsonalaz galdetu zaienean, batzaz beste 7rekin baloratzen dute.

Egungo ongizateak ez du etorkizuneko ongizatea bermatzen. Enpresa batean zuzendaritza-taldea erabakigarria den bezala, politikan ere berdin gertatzen da, eta Gipuzkoan badugu eskarmentua, badakigu nola gobernatzen dugun batzuk eta besteak.

Etorkizuneko Euskadi iraganeko akatsak ez errepikatzeko bermearen gainean eraiki behar da. Nire uste apalean, lehendakari izan nahi duen edonork herri honetan hainbat hamarkadatan gertatutakoari buruzko hausnarketa egin behar du. Euskadi politikoki eta instituzionalki hazi egin behar du eta lanean jarraituko dugu berdintasunean oinarritutako harreman politiko berri bat Estatuarekin lortzeko.

Zalantzan zaudeteno, izan exigenteak, izan inkonformistak, baina izan PNV-rengan konfidantza, ez dizuegu hutsik egingo. Ez dezala inork, lortu dugun guztia arriskuan jarri, ez dezatela guztion etorkizuna arriskuan jarri. Adinekoei eta gure belaunaldikoei zor diegu, baina, batez ere, gure seme-alaba eta ondorengoei zor diegu.

Igandean PNV bozkatu behar da, astelehenean ez baita atzera bueltarik izango.
Gora Euskadi askatuta !